Bestelako Xedapenak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

6063

AGINDUA, 2010eko azaroaren 18koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Euskadiko Unibertsitate Kontseiluaren erabaki bat argitaratzea xedatu duena; hain zuzen ere, Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentziaren administrazio-kontseilurako ordezkari bat izendatzen duena.

Otsailaren 25eko 3/2004 Legeak, Euskal Unibertsitate Sistemarenak, bere 79. artikuluaren bidez sortu du Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentzia, zuzenbide pribatuko ente publiko gisa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari atxikia. Agentziaren helburuak dira euskal unibertsitate-sistemaren kalitatea hobetzen laguntzea, gizarteari eta pertsonei informazioa ematea, eta administrazio publikoei eta unibertsitateei informazioa eta irizpideak ematea erabakiak hartzeko euren prozesuetarako. Helburu horiek erdiesteko, Agentziak baditu bere gobernu-erakundeak, hots, administrazio-kontseilua eta zuzendaria, baita adituen batzorde bat ere, teknikoa eta zientifikoa.

Administrazio-kontseiluaren osaerari dagokionez, zehazki, 82. artikuluak ondokoa ezarri du: unibertsitateen gaietan eskumenak dituen sailburua izango dela kontseiluburu. Era berean, artikulu beraren g) idatzzatiak ezarri duenez, Euskadiko Unibertsitate Kontseiluak izendatutako bost pertsona ospe jakinekoek ere osatuko dute administrazio-kontseilua. Gauza bera adierazten du ekainaren 27ko 138/2006 Dekretuaren 8.1.g) artikuluak. Dekretu horren bitartez Uniqual-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentzia-Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vascoren estatutuak ezartzen dira.

2009ko ekainaren 30ean Euskadiko Unibertsitate Kontseiluak Joxe Mari Aizega Zubillaga jauna, besteak beste, izendatu zuen Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea eta Egiaztatzea Ebaluatzeko Agentziako Administrazio Kontseiluko kide gisa.

Euskadiko Unibertsitate Kontseiluak, 2010eko azaroaren 8an egindako bilkuran, erabakia hartu duenez bere ordezkari bat izendatzeko Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentzia-

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

6063

ORDEN de 18 de noviembre de 2010, de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, por la que se dispone la publicación del Acuerdo del Consejo Vasco de Universidades, de designación de un representante en el Consejo de Administración de la Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco.

En virtud del artículo 79 de la Ley 3/2004, de 25 de febrero, del Sistema Universitario Vasco, se crea la Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco, bajo la forma jurídica de ente público de derecho privado adscrito al Departamento de Educación, Universidades e Investigación. La Agencia tiene como finalidad contribuir a la mejora de la calidad del Sistema Universitario Vasco, proporcionar información a la sociedad y a las personas, así como proporcionar información y criterios a las administraciones públicas y a las universidades en sus procesos de toma de decisiones. Para el logro de estos fines la Agencia cuenta con unos órganos de gobierno, que son el Consejo de Administración y el Director o Directora, así como con una Comisión de Expertos de carácter científico técnico.

En concreto, por lo que respecta a la composición del Consejo de Administración, el artículo 82 establece que estará presidido por el Consejero o Consejera titular del Departamento competente en materia de Universidades. Asimismo, establece en su letra g), que formarán parte del mismo, entre otros, cinco personas de reconocido prestigio nombradas por el Consejo Vasco de Universidades. De la misma manera se manifiesta el artículo 8.1.g) del Decreto 138/2006, de 27 de junio, por el que se aprueban los estatutos de Uniqual Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentzia - Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco.

Con fecha 30 de junio de 2009 el Consejo Vasco de Universidades designó, entre otros, a D. Joxe Mari Aizega Zubillaga como miembro del Consejo de Administración de la Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco (BOPV de 8 de julio de 2009).

Habiendo adoptado el Consejo Vasco de Universidades en su sesión celebrada el día 8 de noviembre de 2010 el Acuerdo por el que se designa a un representante en el Consejo de Administración de la

ren administrazio-kontseilurako eta, Euskadiko Unibertsitate Kontseiluko lehendakaria izanik, erabaki horri behar bezalako zabalkundea emateko, honako hau

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea Euskadiko Unibertsitate Kontseiluak 2010eko azaroaren 8an egindako bilkuran hartu zuen erabakia, Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentziaren administrazio-kontseilurako ordezkaria izendatzekoa. Agindu honen eranskin gisa doa erabaki hori.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko azaroaren 18a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.

ERANSKINA

ERABAKIA, 2010EKO AZAROAREN 8KOA, EUSKADIKO UNIBERTSITATE KONTSEILUARENA, EUSKAL UNIBERTSITATE SISTEMAREN KALITATEA EBALUATU ETA EGIAZTATZEKO AGENTZIAREN ADMINISTRAZIO-KONTSEILURAKO ORDEZKARIA IZENDATZEKO DENA

Euskadiko Unibertsitate Kontseiluak, 2010eko azaroaren 8an egindako bilkuran, aho batez hartu zuen ondoko

ERABAKIA

Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentziako administrazio-kontseiluko kide Joxe Mari Aizega Zubillaga jauna kargutik kentzea, eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

Vicente Atxa Uribe jauna Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentziako administrazio-kontseiluko kide izendatzea.

Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco, como Presidenta de dicho Consejo Vasco de Universidades y a los efectos de darle la publicidad debida,

RESUELVO:

Artículo único.– Publicar en el Boletín Oficial del País Vasco el Acuerdo del Consejo Vasco de Universidades de 8 de noviembre de 2010, de designación de un representante en el Consejo de Administración de la Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco, que se contiene como anexo a la presente Orden.

En Vitoria-Gasteiz, a 18 de noviembre de 2010.

La Consejera de Educación, Universidades e Investigación,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.

ANEXO

ACUERDO DEL CONSEJO VASCO DE UNIVERSIDADES DE 8 DE NOVIEMBRE DE 2010, DE DESIGNACIÓN DE UN REPRESENTANTE EN EL CONSEJO DE ADMINISTRACIÓN DE LA AGENCIA DE EVALUACIÓN DE LA CALIDAD Y ACREDITACIÓN DEL SISTEMA UNIVERSITARIO VASCO

El Consejo Vasco de Universidades en sesión celebrada el 8 de noviembre de 2010 adoptó por unanimidad el siguiente

ACUERDO

Cesar a D. Joxe Mari Aizega Zubillaga como miembro del Consejo de Administración de la Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco, agradeciéndole los servicios prestados.

Nombrar a D. Vicente Atxa Uribe como miembro del Consejo de Administración de la Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco.